

## DIRU SARRERAK

Enpresa sortzerakoan, 4 langileon artean diru kopuru bat jarri beharko dugu, bereziki furgoneta eta minibusa erosteko. Furgoneta, beharrezkoak diren materialak alde batetik bestera garraiatzeko erabiliko dugu, aldiz minibusa, gure bezeroak tailerretik etxera eta etxetik tailerrera eramateko. Gutxi gorabehera langile bakoitzak 8000 euro jarri beharko ditu.

Gainontzeko baliabideei dagokionez, adibidez espazioa, argia eta ura, udaletxearen kontura izango dira. Esate baterako, Lazkaoko Azeria zinemako gela eta udaletxeako bulegoak erabiliko ditugu gure kontuak eramateko. Horrekin batera, Lazkaoko San Benito Ikastolak motrizitatea lantzeko materiala ere utziko digu.

Gainontzeko gastuak ordaintzeko, esate baterako langilen soldata eta ekintzak edo dinamikak egiteko beharrezkoak izango diren materialak, familia bakoitzari kuota pasako zaie hilabetero. Jakinda ahulguneak indartzeko enpresa bat dela, programa indibiduala eta taldekoa eskaintzen dela, 150 euroko kuota izango da hilabetan, minibusa barne. %30a beraien elkartekoek ordainduko dute (Aspace eta Gureak). Hortaz, familia bakoitzak 105€ ordaindu beharko ditu, 45€ bakoitzaren elkarrekin ordainduko baititu. Bestalde, hainbat ekimen martxan jarriko ditugu gastuei aurre egin ahal izateko:

- Esaterako, ETB-ra joango gara publiko gisa
- Errifak egin eta salduko ditugu
- Kamisetak egin eta salduko ditugu
- Aniztasun funtzionala dutenen aldeko krosa sortuko dugu
- Kurtso amaierako antzezpenerako sarrerak kobratuko ditugu.
- Gazta erosi eta azokan jarriko dugu zenbat pixatzen duen asmatzeko. Jokatzeko 1€ jarri behar da.